

BIC ARABA-ri aplikagarri zaion oinarrizko legeria

Nabarmendu beharra dago ondoren adierazten den legeria, BIC ARABARI aplikatzen zaiona, azalpenezkoa dela soil-soilik eta ez mugatzailea. Ia ezinezkoa baita BIC ARABARI aplikagarri zaizkion arauen zerrenda osoa egitea, arau bakar bat ere ahaztu gabe. Izan ere, jardueraren eremuaren arabera, zuzenbidearen hainbat alor eta hainbat mailatako alor dira aplikagarri Espainiako Konstituzioari jarraiki, hala nola BIC ARABARI osatzen duten pertsonen oinarrizko eskubideei eta maila baxuagoko agindu eta ordenantzei dagokienez.

Azpiratzen dugu ondoko xedapenak aipamen modura soilik adierazten direla eta ez direla mugatzaileak:

1) Legeria espezifikoak:

- Sozietatearen estatutuak.

2) BIC ARABA merkataritza-sozietate anonimoa izaki, sozietate mota horiei aplikagarri zaien zuzenbide pribatuaren arauari jarraitzen die. Beraz, merkataritzako sozietateei, oro har, eta sozietate anonimoei, bereziki, aplikatu beharreko legeriaren mende dago haren jardueraren.

3) Gainera, adierazi beharra dugu Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailari atxikitako sozietate publikoa dela BIC ARABA. Beraz, sektore publikoaren zati denez, estatuaren eta autonomia-erkidegoaren legeriaren arabera sozietate publikoentzat xedatutakoa aplikatzen da. Hori dela-eta, funtsean, ondoko arautegia adierazi beharra dagoela irizten da, diruz lagun daitezkeen jarduerari eta kontratazio-jarduerari dagokienez:

Estatuko legeria:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru-laguntzei buruzkoa.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.

EAEko berezko legeria:

- Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina.
- Azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina.

4) Sozietatearen jarduerari dagokionez duten garrantzia aintzat hartuta, honako hauek ere aipatu behar dira:

- Abenduaren 9ko 19/2013 Legea, gardentasunari, informazio publikoaren eskuragarritasunari eta gobernantza onari buruzkoa.
- Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, datu pertsonalen babesari buruzkoa. .- Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, zeinaren bitartez onesten baita langileen estatutuaren testu bategina.
- Abenduaren 23ko HAP/2425/2013 Agindua, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera sektore publikoko kontratazioaren ondorioetarako kontratu mota ugarien mugak argitaratzen dituena.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, laneko arriskuen prebentzioari buruzkoa.
- Etab.

BIC ARABAK zerbitzu juridikoa du kontratatuta URÍA Y MENENDEZ ABOGADOSekin, eta hark identifikatzen ditu aplikagarri izan daitezkeen lege eta araudien baldintzak.